



Ernest eta Célestine

Zineskola 2022

USTIAPEN PEDAGOGIKOA

- Hezkuntza nazionalako formatzaileak
- Maitane Hernandez EKE
- Elise Dilet Ikas

Dokumentu guztiak Ikasen webgunean izanen dira

Sartzeko kodeak > Login: zineskola - **Pasahitza:** zineskola

Aurkezpenaren trama

- 1) Sar hitza:- Zineskola dispositiboaren helburuak (PEAC/ADAGE)
 - *Ernest eta Célestine* filma nola sortu ote zen?
- 2) Ulermenaren lantzeko urraspide pedagogiko proposamena
- 3) Jarduera eta euskarri proposamenak
 - Filma ikusi aitzin
 - Filma ikusi ondotik
 - Luzapenak: sail artistikoa eta bibliografia

1) Zineskola dispositiboa (PEAC)




Ikasleendako helburuak:

- Zineman ikusi/ko duten *Ernest eta Célestine* filmaren ulertzea
- Kultura zinematografikoaren aberastea
- Ahozko eta idatzizko hizkuntza gaitasunen lantzea


Nola sortu ote zen *Ernest eta Célestine* filma?



Gabrielle Vincent
1928-2000



Daniel Pennac




Benjamin Renner Stéphane Aubier Vincent Patar

[Ikus 1. dok.](#)

2) Ulermenaren lantzeko urraspide pedagogiko proposamena

IKASLEEK:

- Ikasleek zer ulertu behar ote dute? (NOR/K? NON? NOIZ? ZER?)
(Ulermenerako estrategien eraikitzea)
- Ikasleek zer laguntza beharko ote dute euskara/z ulertzeko eta adierazteko?
(Tresna linguistikoak: hiztegi eta egitura bereziak)
- Ikasleak nola lagun ote ditzakegu beren iritzi/pentsamoldearen eraikitzen?





Euskarri bakoitzeko **hiztegi** eta
egitura berezien
ezagutaraztea eta
erabilaraztea

-
-

NON gertatzen ote da?

Non kasua

-n
da/dira.

**Nondik / Nora
kasuak**

-tik da/dira.
-ra da/dira.

NOR ote dira protagonistak?

Nor/Nork/Norekin kasuak

- da/dira.
-k du/dute.
-ekin du/dute
-ekin da/ dira.

FILMAN/KAPITULUAN
Oinarrizko baliabideak:
Bideo/Testu/Argazki/
Irudi...

ZER gertatzen ote da?

- da/dira.
- du/dute.
-

NOIZ gertatzen ote da?

-n da/dira.
- du/dute.

NOR ote dira protagonistak?

-
-

Iritziaren emateko?

NON gertatzen ote da?

-
-
-

ZER gertatzen ote da?

-
-
-

FILMAN/KAPITULUAN

Oinarrizko baliabideak:

Bideo/Testu/Argazki/
Irudi/lekukotasun/
eskema...

NOIZ gertatzen ote da?

-
-
-

Iritziaren adierazteko, azaltzeko eta argumentatzeko hiztegi eta egitura bereziak ezagutaraztea eta erabilaraztea:

Erlatiboa:

- *Pentsatzen dut.... dela/duela*
- *Uste dut.....*
- *Ados naiz /Ez naiz ados.*
- *.....lako/baita.*

Ikasleen iritzien biltzeko galderak:

- Zer diozue filma horri buruz? Pertsonaia horri buruz? Gertakari horiei buruz?...

Urraspidea:

- **1. urratsa:** Hiztegi eta egitura berriak ikasleei ezagutaraztea eta erabilaraztea
- **2. urratsa:** Ulermenaren lantzeko, ikasleek NOR/K? NOIZ? NON? ZER? galderei erantzutea
- **3. urratsa:** Idatzizko aztarnaren eraikitzea
- **4. urratsa:** Eztabaidaren sortzea ahozkoan (iritzien adieraztea, ideien trukatzeta, argumentatzea...)

**3) Jarduera eta euskarri
proposamen zenbait**

Filma ikusi aitzin: hipotesien egitea eta horietarik batzuk egiaztatzea

Istorioaren ezaugarri batzuen lantzea filmaren aiseago ulertzeko:
ikasleei hiztegiaren ezagutaraztea, ulertaraztea


1. saioa	Proiektuaren abiaraztea: Daniel Pennac-en eleberriaren testuan oinarrituz pertsonaien aurkeztea: NOR ote dira?
2. saioa	Afixaren eta sinopsiaren analisisa: NOR ote dira pertsonaiak eta ZER izanen ote dira gertakariak? NON gertatzen ote da?
3. saioa	Trailerraren ikustea eta transkripzioaren irakurtzea. NOR? NON? ZER? NOIZ?
4. saioa	Ernest eta Célestinen topaketa NOR? NON? NOIZ? ZER?

Proiektuaren azalpena:

« Laster film baten ikustera joanen gara. Filma euskaraz izanen da. Hortako, eta ulermenaren errazteko, filmaren pasarte/ezaugarri inportanteak aipatuko/landuko ditugu. »

OHARRA: Filmaren titulua ez da eman behar.

1.saioa: NOR ote dira pertsonaia nagusiak?



Daniel Pennac-en testuan oinarrituz: eleberriaren lehen kapituluko bi zatiren irakurtzea eta ulertzea. (Testua irakasleak irakur lezake.)

- Ikasleek taldeka bi galderei erantzun beharko diete:
 - **NOR** ote dira mintzo diren pertsonaiak?
 - **ZER** ote dakigu testu hori irakurri eta? Ba ote dakizue zer film ikusiko dugun? (Beharbada filma edo albumak jadanik ezagutzen dituzte)
- Elkarretaratzean irakasleak ikasleen hipotesiak eta proposamenak afixa batean idatziko ditu. **Afixa hauosatzen joanen da.**



Egun on. Célestine deitzen naiz. Sagu bat naiz. « Sagu ttipia » erraiten duten bezala. Beti « Sagu ttipi » erraiten dutela ohartzen zirezte ? Beldurtiak ez direlarik, bistan da !

Erhiarekin erakusten zaituzte beldurtuak direlarik, oihu eginez : « SAGU BAT ! SAGU BAT ! » Oihu egiten dute hartz bat beren mainu gelan ikus balute bezala. Eta lasterka gure gibeletik abian dira erratz batekin... bederen bihoztunak...

Besteek kadira baten gainerat jauzi egiten dute, oihuka : « SAGU BAT ! SAGU BAT ! ».

Baina beldurtuak ez direlarik, zu ikusi gabe zutaz mintzatzen direlarik, beti erraiten dute : « sagu ttipi bat » Bereziki ixtorio bat kontatzen dutelarik : « Behin bazen sagu ttipi bat... ».

Zozo da, saguak, guziak bezala, ttipiak badira eta handiak badira : sagu bat ñiñi hasten da, handitzen da eta zinez zahartzen ahal da, hortz bat ere gabe eta gorputz guzian hezur eritasunarekin.

Orduan, ni Célestine naiz, sagu bat beste guziak bezala.

Daniel Pennac Ernest eta Célestine eleberria

Ikus 2. a. dok.



Egun on. Ni Ernest deitzen naiz. Hartz bat naiz. « Hartz lodi bat » erraiten duten bezala. Beti « hartz lodia » erraiten dutela ohartzen zirezte ? Beldurtiak ez direlarik bistan da !

Oihan batetan haiekin gertatzen bazira erhiarekin erakusten zaituzte beldurtuak direlarik, oihu eginez : « HARTZ BAT, HARTZ BAT ! ». Oihu egiten dute, sagu talde bat beren sukaldean ikusi balute bezala. Eta lasterka ihes egiten dute. Bederen gisakoenek...

Besteek tirokatzen baitzaituzte beren armarekin ! Bai ! Beren armarekin !!

Baina zutaz mintzatzen direlarik zu ikusi gabe, beti erraiten dute : « Hartz lodi bat ». Bereziki ixtoria bat kontatzen dutelarik : « Behin bazen hartz lodi bat... ».

Zozo da, hartzak, guziak bezala, meheak badira eta lodiak badira eta ez meheak eta ez lodiak badira.

Ni, hartz bat naiz, ez lodiegi, ez mehegi ere... Pixka bat mehegi neguaren bukaeran (jan gabe egonik), eta pixka bat lodiegi udaren bukaeran (sobera janik) hots ! Ah ! Ez naiz hartz panpina bat ere !

Ez, ni Ernest deitzen naiz eta hartz bat naiz, beste guziak bezala.

Daniel Pennac Ernest eta Célestine eleberria

Ikus 2. b. dok.

2. saioa: Afixaren eta sinopsiaren aztertzea

NOR ote dira pertsonaiak eta ZER izanen ote dira gertakariak?



- Afixa pixkanaka erakusten ahal da, hastapenean titulua baizik ez erakutsiz: zer idatzia ote da hemen? Testuen lantzearekin lotura eginen da.

- Afixaren elementuen aztertzea: ikasleek ikusten dutena deskribatuko dute.
 - Testu-elementu ezberdinak zer ote dira?
 - Irudia: eszena, koloreak, marrazki teknika (akuarela) protagonisten jarrera.
 - Ikasleen hipotesien biltzea edo aitzineko hipotesien baieztatzea: Zer harreman ote dute bi protagonistek? Zer gertatuko ote da filmean?

Irakasleak ikasleen proposamenak afixan gehituko ditu.

- Sinopsiaren azterketa

- Talde handian edo talde ttipitan:
- Irakasleak sinopsia eta filmaren afixaren arteko loturak eginaraziko dizkie ikasleei eta afixaren osatzen segituko dute.
- Ulermena aiseago izan dadin hitz batzuen sinonimoak edota irudiak erabil daitezke.

Zer gehiago ote dakigu pertsonaiei buruz?

Non bizi ote da Ernest? Eta Célestine?

Nola elkar ezagutu ote dute?

Nolako harremana ote dute?

Sinopsia

Ernest oihanean bizi den hartz handi bat da, musikaria da.

Neguko hibernazio luzetik atzarri delarik, gose hamikatua abiatu da hirira, sabelaren betetzeko zerbaiten bila. Baina musikak ez dio jatekorik ematen, eta zikinontzitan bila ari dela, hara non topatu duen Celestine sagutxoa.

Bai Ernestek bai eta Celestinek ere, elkarren laguntza beharko dute beren bizimoduaren aldatzeko. Hartzak goian eta saguak behean bizi diren jendarte zorrotz eta zurrunean, bi lagunek hainbat arau hautsiko dute eta inguru osoa azpiz gora ezarriko beren arteko laguntasunaren iraunarazteko.

3. saioa: Filmaren trailerra

https://www.youtube.com/watch?v=mY_l22rH6XU&t=12s

NON? NOR? ZER? NOIZ?

Ikasleen hipotesien baieztatzeko, barnatzeko.

Pertsonaien izenen, rolen ulertzeko.

Zer harreman mota diren ikusteko.



Trailerraren transkripzioa

Pertsonaien identifikatzea. NOR ote da mintzo?

«Hartz gaiztoa, esnatzen denean, goseak dago. Eta zer da hartz gaiztoak gehien nahi izaten duena?
Sagutxo bat! gordinik nahi izaten ditu, bizirik! »

«Baina hartza benetan ote da horren gaiztoa?»

Hau Célestine da. Eta hau bere mundua, lur azpiko mundua. Baina bakar bakarrik sentitzen da bertan.


Hau Ernest da. Hau bere mundua, lur gainekoa. Inork ez duela maite pentsatzen du.

Bi mundu apartetan bizi dira.

« AAAAAA! Sagua! »

«Hortik hortik! »

Baina gaur den dena doa aldatzera.



**NOR? NON?
NOIZ? ZER?**

«Zer izen duzu?»
«Ernest.»
«Ba ni Célestine naiz!»

Benetan atsegina, bikaina, harribitxi bat!

«Ernest?»
«Zuk sartu duzu hona?»
«Zer egin du ba Célestinek?»
«Hartz amorratu bat sartu du gure artean!»
(IRRATIAN): «Ez dugu atsedetik hartuko Ernest eta bere konplize...»
«O !»
«Lasai, ez gaituzte inoiz aurkituko...» «La la la la...»

Baina nola elkartuko dira ba hartza eta sagua?

«Saguak behean eta hartzak goian ezta?»
«Ba bai horrela izan da beti!»


«Célestine goazen hemendik!»
Ernest eta Célestine, Zineuskadiren eskutik zinema euskaraz



4. saioa: Ernest eta Célestineren topaketa

- Ikasleek taldeka galderari erantzunen diote:

Zergatik Ernestek ez du Célestine jaten?



Ikus 6. b. dok.

Ernest eta Célestinen lehen topaketa

Célestine : « Ez ! Ez ! Ez nezazu jan ! Ez nezazu jan ! »

Ernest : « Goseak nago ! »

Célestine : « Zer izen duzu ? »

Ernest : « Ernest. »

Célestine : « Ni Célestine naiz. Serio hitz egin behar dugu Ernest ! Ezin naizu jan ! Ipuinetan jaten dituzte hartzek saguak ? Ez dituzu ipuinak sinetsiko, ez zara ... »

Ernest : « Bainan nik goseak nago ! »

Célestine : « Goseak goseak ! Ni bezalako sagutxo batekin aseko zarelakoan ala ? Begira nezazu Ernest ! Hezur eta azal nago. Osasunarentzat txarra da zaboruntzietatik jatea ! Munduko gaixotasun guziak daude zaboruntzietan : gripa, tifusa, hepatitis, kolera. Ez dituzu munduko gaitz guziak harrapatu nahiko ? »

Ernest : « Ez noski Célestine. Baina... »

Célestine : « Utzi ikusten ! Mutur hotz eta bustia, begiak lauso ilea urri eta belarriak... Pu ! Eta hortzak ? Aaa... »

Ernest : « AAA ! »

Célestine : « OOO, kaskar ! »

Ernest : « Eta ? Gaixo nago ? »

Célestine : « Oraindik ez. Baina bidean. »

Ernest : « O ! »

Célestine : « Entzun Ernest, nik esango dizut nun jarriko zaren osasun txukun, konbeni zaizun guztia janez. »

Ernest : « Esponja goxoak ? »

Célestine : « Esponja goxoak, turroia, hartzaxoak, mazapanak, ados ? »

Ernest : « Ados ! »

Ulermenaren lantzeko: hipotesien taula

NOR ote dira pertsonaiak?
(Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola)

Non gertatzen ote da?
(Leku desberdinak)

Noiz gertatzen ote da?

Zer gertatzen ote da?
(Ekintzak/ Bukaera)

Filma ikusi ondotik

Ikasleen iritzien biltzea ahoz, eta afixa batean idaztea

Gustatu ote zaizu? Zergatik?	
Gustatu zait... lako/baita	Ez zait gustatu... lako/baita


Ulermenaren barnatzea hipotesiak egiaztatuz

Ulermena lantzeko: hipotesien taula		Egiaztapenak Egia da/Ez da egia/Ez dakigu
NOR ote dira pertsonaiak? (Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola)		
Non gertatzen ote da? (Leku ezberdinak)		
Noiz gertatzen ote da?		
Zer gertatzen ote da? (Ekintzak/ Bukaera)		

Ernesten eta Célestineren munduak

Célestine zergatik joaten da gaineko mundura?

Galdera horri erantzuteko, euskarri bat baino gehiago baliatzen ahal dira.



- «*Gaineko mundua eta peko mundua*» D. Pennacen eleberriaren 2. kapitulua

Testua irakurri eta, ikasleek galderari erantzunen diote filmean ikusi dutenarekin osatuz.

- Ikasleek taldeka irudiak sailkatuko dituzte.

- Gaineko mundua



- Peko mundua



- Elkarretaratzea: Zein da gure munduari hurbilenik? Zergatik?

Ikus 8. dok.

Pertsonaia nagusien deskribapenaren eta rolaren idaztea

Hartzak:
Gaineko munduko
pertsonaiak



Saguak:
Peko munduko
pertsonaiak

- Ikasleak taldeka izanen dira. Talde bakoitzak pertsonaia baten deskribapena eta rola idatziko du.

Pertsonaia	Rola	Non bizi da?

- Elkarretaratzea talde osoan taularen osatzeko

Pertsonaien arteko harremanak

Ikasleak taldeka izanen dira. Talde bakoitzak bi pertsonaiaren irudiak izanen ditu. Galdera: **Zer harreman ote dute pertsonaiek? Elkarrizketak asmatuko dituzue.**

Ernest eta Célestine



Saguak eta hartzak



Grisa eta sagutxoak




Ernest eta Georges



Ernest eta polizia



Célestine eta Dentisten nagusia



Ikus 10. dok.

Ernesten eta Célestineren epaiketak

Irudien laguntzaz, taldeka, ikasleek epaiketa bakoitzari dagokion testua aztertuko dute.

Zer leporatua ote zaio Célestineri?

Zer leporatua ote zaio Ernesteri?

Irudien laguntzaz, epaiketen bukaera idatz ezazue.

Bi epaiketak konpara itzazue eta berdintasunak azpimarra. Zuen iritzia emazue.

Célestineren epaiketa hartzen munduan



Ikus 11. a. dok.


Ernesten epaiketa saguen munduan



Ikus 11. b. dok.


Narrazioaren lantzea: Istoria iruditan

- Ikasleak taldeka izanen dira. Talde bakoitzak irudi multzo bat izanen du, «irudi taula» bat. Talde bakoitzak bere irudien arabera istorio parteaz azaldu beharko die besteiei, lau galderei erantzunez: **NON? NOIZ? NOR? ZER?** Idatziz prestatuko dute.
- Istorioaren ordenari jarraikiz, talde bakoitzak hitza hartuko du, irudiak arbelean erakutsiz.
- Irakasleak herexak atxikiko ditu.



Ikus 12. dok.

Filmaren araberako albumaren idaztea



Daniel Pennac

Aitzineko lana kontuan hartuz, istorioaren idaztea irudi sekuentzialak erabiliz. Bookcreator baten sortzea eta Ikas pedagogia zerbitzura igorri!

Ikus 13. dok.


Luzapenak

- Célestine marrazkilari: marrazkiak, pinturak (akuarela).
Ikasleei proposatzen ahal zaie maitatu duten pertsonaia baten edo eszena baten marraztea Célestineren gisara.



- Marrazki bizidunen egiteko teknikaren ulertarazteko, Flipbook (Folioscope) baten egitea proposatzen ahal zaie ikasleei.

Teknika hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=zo9OebWjbsQ>



LIGHT PAINTING TEKNIKA


<https://vimeo.com/683251942/0ecdee375f>



STOP MOTION URRATSEZ URRATS





- Argazkien hartzea: <https://vimeo.com/683288444/0b9f933d36>
- Muntaketa nola egin: <https://vimeo.com/683293543/40cf82f3eb>







- Bibliografia: Ernest(o) (Zesar) eta Celestine



- Bibliografia: Ezohiko adiskidetasunak

